



**ERREENTERIAKO UDALA ETA MENDEKO
ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEI DAGOZKIEN
EGOERA ORRIAK, KONTU IKUSKARIEN TXOSTENAREKIN
BATERA***



AURKIBIDEA

KONTU IKUSKAPENENKO TXOSTENA.....	1
1. IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA ORRIAK.....	6
1.1. Errenteriako Udala	6
1.1.1. Aurrekontuaren likidazioa.....	6
1.1.2. Aurrekontu-emaitza.....	7
1.1.3. Diruzaintzako gerakina	7
1.2. Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua.....	8
1.2.1. Aurrekontuaren likidazioa.....	8
1.2.2. Aurrekontu-emaitza.....	9
1.2.3. Diruzaintzako gerakina	9
1.3. Errenteria Musikal Patronatua	10
1.3.1. Aurrekontuaren likidazioa.....	10
1.3.2. Aurrekontu-emaitza.....	11
1.3.3. Diruzaintzako gerakina	11
1.4. Udal Kirol Patronatua	12
1.4.1. Aurrekontuaren likidazioa.....	12
1.4.2. Aurrekontu-emaitza.....	13
1.4.3. Diruzaintzako gerakina	13
2. AURKEZTEKO OINARRIAK.....	15
2.1. Sarrera	15
2.2. Aplikatzekoa den araudia.....	16
3. AZALPEN ATALAK: IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK	18
3.1. Aurrekontua eta aurrekontu-aldaketak.....	18
3.2. Aurrekontua gauzatzeari buruzko iruzkin orokorrak.....	21
3.3. Zuzeneko zergak	24
3.4. Zeharkako zergak, tasak eta bestelako sarrerak	24
3.5. Jasotako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	26
3.6. Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintza-jarduketan ondoriozko beste hainbat sarrera.....	28
3.7. Finantza-pasiboen eta finantza-gastuen aldakuntza	32
3.8. Langile-gastuak	34



AURKIBIDEA

3.9. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.....	36
3.10. Emandako transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak.....	38
3.11. Inbertsio errealak.....	39
3.12. Diruzaintzako funts likidoak.....	40
3.13. Aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak.....	41
3.14. Aurrekontuz kanpoko zordunak eta hartzekodunak.....	43
4. ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ARLO INTERESGARRIAK.....	46
4.1. Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua.....	46
4.2. Errenteria Musikal Patronatua.....	46
4.3. Udal Kirol Patronatua.....	47



**ERREENTERIAKO UDALA ETA MENDEKO
ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEN EGOERA
ORRIEI BURUZKO IKUSKAPEN TXOSTENA***



2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEN EGOERA ORRIEI BURUZKO IKUSKAPEN TXOSTENA

ERRENTERIAKO Udaleko Kontu-hartzaitza Nagusiari:

I. SARRERA

Gaineratzen diren ERRENTERIAKO UDALAREN eta haren mendeko eta berezko nortasun juridikoa duten “ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA”, “ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA” eta “UDAL KIROL PATRONATUA” erakundeen aurrekontuko egoera-orriak ikuskatu ditugu (1. atala). Egoera-orri horiek erakunde horietako bakoitzaren 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren ondorioz lortu dira.

Alkateak / erakunde horietako lehendakariak du aurrekontu-likidazioak aurkeztu eta emateko erantzukizuna, aplikatzekoa zaion finantza-informazioaren esparrua kontuan hartuta (2.1. atalean zehazten da) eta, zehazki, aurrekontuen kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera. Orobat, aurrekontuaren likidazioa oker materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrolaren erantzulea da.

II. LANAREN HELBURUA ETA IRISPIDEA: KONTU IKUSKARIEN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da erantsitako aurrekontuko egoera-orriek gure iritzian irudi zehatza jasotzen duten adieraztea, sektore publikoaren ikuskapen-printzipioei eta -arauei jarraituz egindako lanean oinarrituta. Arau horiek eskatzen digute kontu-ikuskapena planifikatu eta gauzatzea, egoera-orri horiek oker materialik ez dutenaren arrazoizko (baina, ez erabateko) ziurtasuna izateko.

Kontu-ikuskapen batek berekin dakar ebidentzia egokia eta behar adinakoa lortzea aurrekontu-likidazioan jasotako zenbatekoen eta informazioaren inguruan. Hautatutako prozedurak kontu-ikuskariaren iritziaren arabera dira, aurrekontu-likidazioan oker materialak izateko arriskuaren balorazioa barne dela. Arriskuaren balorazio horiek egitean, kontu-ikuskariak kontuan hartu behar du kudeatzaileak aurrekontu-likidazioa arrazoiz prestatu eta aurkezteko garrantzitsua den barne-kontrola, kontu-ikuskapeneko prozedura egokiak diseinatzeko, inguruabarren arabera, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia adierazteko helburuarekin. Kontu-ikuskapen batean sartzen da, halaber, kontabilitate-irizpideen egokitzapena eta kudeatzaileak egindako kontabilitate-zenbatespenen arrazoizkotasuna ebaluatzea, baita aurrekontu-likidazioaren aurkezpen globala ebaluatzea ere.



Gure ustez, lortu dugun kontu-ikuskapeneko ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen digu kontu-ikuskapenaren inguruko aldeko iritzia salbuespenekin emateko.

III. LANAREN EMAITZAK: SALBUESPENAK DITUEN ALDEKO IRITZIAREN OINARRIA

Txosten honen datan, ezin izan dugu jaso ondokoengandik baieztapena jasotzeko egin genuen eskaeraren erantzuna:

- Udalaren bi hartzekodun eta Egoitzaren beste bat, 2015eko abenduaren 31ko zorraren osaerari eta data horretan amaitutako ekitaldian zehar erakunde horiekin egindako eragiketen bolumenari dagokienez.
- Udalarekin harreman profesionalak izan dituzten zirkularizatutako bi abokatu, haiengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz sor daitezkeen guztizko obligazioei edo pasibo kontingenteei dagokienez.

Gainera, gure lanean zehar, aplikatzekoak diren kontabilitateko printzipioen eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orrietan barne hartu beharko liritekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Doikuntza horien izaera eta erantsitako 2015eko abenduaren 31ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinean izango luketen eragina ondoren adierazten dira:

- Eurotan -		
Kontzeptua	Atala	Diruzaintzako gerakina
Udala -		
Gastuak -		
- 2015eko abenduaren 31n aitortutako eskubide gutxiegi, honako hauen ondorioz:		
o Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak:	3.8	(21.254)
o Transferentzia arruntak (Oarsoaldea)	3.9	(31.010)
o Inbertsio errealak	3.10	(41.793)
Beste batzuk -		
- 2015/12/31n gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideen gehiegizko kalkulua	3.12	136.749
Kirol Patronatua -		
- 2015eko abenduaren 31n ez zeuden diruzaintzako funts likidoak ezabatzea	4.3	(21.323)
GUZTIRA		(21.369)



Udalaren gastuen egoera-orriko “Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak” kapituluak, honi erantsitakoak, 502.552 euroko baterako zenbatekoaz aitortutako obligazioak biltzen ditu; zenbateko hori San Marko Mankomunitatearen 2015eko ekitaldiko aurrekontu-defizita finantzatzera bideratu da. Hala ere, gastu horren izaera ekonomikoa kontuan hartuta, aipatutako egoera-orriko “Transferentzia arruntak” kapituluak kontabilizatu behar zen. Horren ondorioz, honi erantsitako udalaren gastuen egoera-orritik adierazi ditugun kapituluetan zenbateko hori gehitu eta gutxitu egin da hurrenez hurren (3.8 atala).

IV. IRITZIA

Gure iritzian, “Lanaren emaitzak: Salbuespenak dituen aldeko iritziaren oinarria” paragrafoan deskribatutako gertaeren ondorioengatik ez bada, erantsita doazen aurrekontuko egoera-orriek jaso egiten dute, alderdi garrantzitsu guztietan, ERRENTERIAKO UDALAREN eta haren mendeko “ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA”, “ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA” eta “UDAL KIROL PATRONATUA” erakunde autonomoen 2015eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion aurrekontu-likidazioetan oinarrituta lortutako egoera orrien irudi zehatza, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearen eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta irizpideen arabera.

V. IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTEN BESTE GAI BATZUK


Beste gai batzuei buruzko paragrafoa

Erantsitako 3.1 atalean zehazten den moduan, Udalak ez du onartu 2015eko ekitaldirako aurrekontu orokorra. Horrenbestez, aplikatzekoa den legeriaren arabera, automatikoki luzatutzat hartzen dira aurreko ekitaldikoak. Beraz, txosten honetan 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aipatzen denean, 2014ko ekitaldiko aurrekontu luzatuaren likidazioa esan nahi dela ulertu behar da.

Dena den, lanean aritu garen bitartean egiaztatu ahal izan dugunez, Udalak 2015eko ekitaldirako luza zitezkeen kredituen izaera eta zenbatekoa zehazteko aplikatu dituen irizpideetako batzuk eta horiek finantzatuko lituzketen sarreraren aurreikuspenenak ez datoz bat aipatutako araudian bildutakoekin.



Betean Auditoría, SLP

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke, is written over the name below it.

José Ignacio Miguel Salvador

2016ko maiatzaren 25a



**ERREENTERIAKO UDALA ETA MENDEKO
ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2015EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOEI DAGOZKIEN
EGOERA ORRIAK***



1. IKUSKATUTAKO AURREKONTUKO EGOERA ORRIAK

1.1. ERRENTERIAKO UDALA

1.1.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena	Gauzatze-egoera
1- Zuzeneko zergak	3.3	9.887.600,00	-	9.887.600,00	9.915.954,53	8.915.023,46	1.000.931,07	28.354,53
2- Zeharkako zergak	3.4	425.000,00	-	425.000,00	256.357,15	173.973,79	82.383,36	(168.642,85)
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	8.296.245,00	-	8.296.245,00	8.330.929,89	6.671.788,35	1.659.141,54	34.684,89
4- Transferentzia arruntak	3.5	24.949.479,00	479.213,10	25.428.692,10	25.601.539,52	24.809.440,05	792.099,47	172.847,42
5- Ondare-sarrerak		391.010,00	-	391.010,00	603.740,15	568.134,48	35.605,67	212.730,15
Sarrera arruntak guztira		43.949.334,00	479.213,10	44.428.547,10	44.708.521,24	41.138.360,13	3.570.161,11	279.974,14
6- Inbertsio errealen jesterentzea		730.000,00	-	730.000,00	1.643,61	1.643,61	-	(728.356,39)
7- Kapital-transferentziak	3.5	1.578.200,00	229.848,38	1.808.048,38	2.375.158,20	550.103,05	1.825.055,15	567.109,82
8- Finantza-aktiboak		90.000,00	3.654.109,22	3.744.109,22	35.077,69	23.108,69	11.969,00	(3.709.031,53)
9- Finantza-pasiboak	3.6	2.119.389,00	2.984.955,00	5.104.344,00	2.984.955,00	2.984.955,00	-	(2.119.389,00)
Kapital-sarrerak guztira		4.517.589,00	6.868.912,60	11.386.501,60	5.396.834,50	3.559.810,35	1.837.024,15	(5.989.667,10)
SARRERAK GUZTIRA		48.466.923,00	7.348.125,70	55.815.048,70	50.105.355,74	44.698.170,48	5.407.185,26	(5.709.692,95)

-Eurotan-

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena	Gauzatze-egoera
1- Langile-gastuak	3.7	14.892.500,00	681.000,00	15.573.500,00	15.115.439,52	15.088.182,24	27.257,28	458.060,48
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	3.8	16.780.318,00	682.149,39	17.462.467,39	15.919.251,05	14.218.604,37	1.700.646,68	1.543.216,34
3- Finantza-gastuak	3.6	453.000,00	(171.000,00)	282.000,00	258.024,57	258.024,57	-	23.975,43
4- Transferentzia arruntak	3.9	7.247.635,00	(97.326,68)	7.150.308,32	6.508.739,72	6.269.706,92	239.032,80	641.568,60
Gastu arruntak guztira		39.373.453,00	1.094.822,71	40.468.275,71	37.801.454,86	35.834.518,10	1.966.936,76	2.666.320,85
5- Inbertsio errealak	3.10	6.348.120,00	6.197.302,99	12.545.422,99	6.854.120,58	5.958.578,56	895.542,02	5.691.302,41
7- Kapital-transferentziak	3.9	78.000,00	55.000,00	133.000,00	128.504,25	99.504,25	29.000,00	4.495,75
8- Finantza-aktiboak		90.000,00	1.000,00	91.000,00	25.277,69	24.917,69	360,00	65.722,31
9- Finantza-pasiboak	3.6	2.577.350,00	-	2.577.350,00	2.600.609,14	2.600.609,14	-	(23.259,14)
Kapital-gastuak guztira		9.093.470,00	6.253.302,99	15.346.772,99	9.608.511,66	8.683.609,64	924.902,02	5.738.261,33
GASTUAK GUZTIRA		48.466.923,00	7.348.125,70	55.815.048,70	47.409.966,52	44.518.127,74	2.891.838,78	8.405.062,18

-Eurotan-

2015EAN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Hasieran kobratzeko / ordaintzeko	Baliogabetzea	Kobrantzak / Ordainketak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak	3.12	7.250.030,22	(308.295,54)	4.790.410,49	2.151.324,19
Hartzekodunak		3.557.088,23	-	3.557.088,23	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		3.692.941,99	(308.295,54)	1.233.322,26	2.151.324,19



1.1. ERRENTERIAKO UDALA (jarraipena)

1.1.2. AURREKONTU-EMAITZA

		-Eurotan-
Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		2.695.389,22
Likidatutako eskubideak	50.105.355,74	
Aitortutako obligazioak	47.409.966,52	
		<hr/>
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetakoa eragiketen emaitza:		(308.295,54)
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	-	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	308.295,54	
		<hr/>
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU EMAITZA		2.387.093,68
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		2.042.015,55
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	2.098.273,87	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak	(56.258,32)	
		<hr/>
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		4.429.109,23

1.1.3. DIRUZAINZAKO GERAKINA

		-Eurotan-
1.- Diruzaintzako funts likidoak		961.231,49
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		12.483.304,91
Aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak	7.558.509,45	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	4.924.795,46	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
		<hr/>
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		4.768.996,31
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	2.891.838,78	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	111.628,63	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.766.142,05	
Aplikatzeko dauden ordainketak	(613,15)	
		<hr/>
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		8.675.540,09
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak		2.160.137,04
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		6.515.403,05
Finantzaketa lotua		1.050.108,04
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		5.465.295,01



1.2. ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA

1.2.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena	Gauzatze-egoera
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	1.565.000,00	75.000,00	1.640.000,00	1.679.926,60	1.542.652,96	137.273,64	39.926,60
1- Transferentzia arruntak	3.5	4.124.200,00	(84.474,89)	4.039.725,11	4.031.751,87	3.792.955,65	238.796,22	(7.973,24)
5- Ondare-sarrerak		500,00	-	500,00	2,24	2,24	-	(497,76)
Sarrera arruntak guztira		5.689.700,00	(9.474,89)	5.680.225,11	5.711.680,71	5.335.610,85	376.069,86	31.455,60
7- Kapital-transferentziak	3.5	30.000,00	-	30.000,00	30.942,00	30.000,00	942,00	942,00
3- Finantza-aktiboak		-	134.474,89	134.474,89	-	-	-	(134.474,89)
Kapital-sarrerak guztira		30.000,00	134.474,89	164.474,89	30.942,00	30.000,00	942,00	(133.532,89)
SARRERAK GUZTIRA		5.719.700,00	125.000,00	5.844.700,00	5.742.622,71	5.365.610,85	377.011,86	(102.077,29)

-Eurotan-

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena	Gauzatze-egoera
1- Langile-gastuak	3.8	783.700,00	(32.000,00)	751.700,00	690.486,68	676.311,30	14.175,38	61.213,32
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	3.9	4.905.700,00	117.000,00	5.022.700,00	4.935.068,53	4.118.969,44	816.099,09	87.631,47
3- Finantza-gastuak		300,00	-	300,00	101,51	101,51	-	198,49
Gastu arruntak guztira		5.689.700,00	85.000,00	5.774.700,00	5.625.656,72	4.795.382,25	830.274,47	149.043,28
3- Inbertsio errealak		30.000,00	40.000,00	70.000,00	87.940,22	57.998,53	29.941,69	(17.940,22)
Kapital-gastuak guztira		30.000,00	40.000,00	70.000,00	87.940,22	57.998,53	29.941,69	(17.940,22)
GASTUAK GUZTIRA		5.719.700,00	125.000,00	5.844.700,00	5.713.596,94	4.853.380,78	860.216,16	131.103,06

-Eurotan-

2015EAN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Hasieran kobratzeko / ordaintzeko	Baliogabetzea	Kobrantsak / Ordainketak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak		483.096,38	-	483.096,38	-
hartzekodunak		811.858,62	-	811.858,62	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		(328.762,24)	-	(328.762,24)	-



1.2. ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA (jarraipena)

1.2.2. AURREKONTU EMAITZA

		-Eurotan-
Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		29.025,77
Likidatutako eskubideak	5.742.622,71	
Aitortutako obligazioak	5.713.596,94	
		<hr/>
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatueto eragiketen emaitza:		-
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	-	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	-	
		<hr/>
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU EMAITZA		29.025,77
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		-
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	-	
Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketako desbideratzeak	-	
		<hr/>
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		29.025,77

1.2.3. DIRUZAINZAKO GERAKINA

		-Eurotan-
1.- Diruzaintzako funts likidoak		678.016,72
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		377.011,86
Aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak	377.011,86	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
		<hr/>
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		891.527,92
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	860.216,16	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak	-	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	31.311,76	
Aplikatzeko dauden ordainketak	-	
		<hr/>
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		163.500,66
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		163.500,66
Finantzaketa lotua	-	
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		163.500,66



1.3. ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA

1.3.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena	Gauzatze-egoera
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	250.000,00	-	250.000,00	284.234,02	272.989,22	11.244,80	34.234,02
4- Transferentzia arruntak	3.5	1.743.373,00	-	1.743.373,00	1.299.881,06	1.053.325,92	246.555,14	(443.491,94)
Sarrera arruntak guztira		1.993.373,00	-	1.993.373,00	1.584.115,08	1.326.315,14	257.799,94	(409.257,92)
8- Finantza-aktiboak	3.5	-	12.000,00	12.000,00	-	-	-	(12.000,00)
Kapital-sarrerak guztira		-	12.000,00	12.000,00	-	-	-	(12.000,00)
SARRERAK GUZTIRA		1.993.373,00	12.000,00	2.005.373,00	1.584.115,08	1.326.315,14	257.799,94	(421.257,92)

-Eurotan-

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena	Gauzatze-egoera
1- Langile-gastuak	3.8	1.691.770,00	40.660,00	1.732.430,00	1.689.189,91	1.689.189,91	-	43.240,09
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	3.9	242.543,00	(28.660,00)	213.883,00	171.343,66	138.668,09	32.675,57	42.539,34
4- Transferentzia arruntak		59.060,00	-	59.060,00	59.060,00	51.460,00	7.600,00	-
Gastu arruntak guztira		1.993.373,00	12.000,00	2.005.373,00	1.919.593,57	1.879.318,00	40.275,57	85.779,43
Kapital-gastuak guztira		-	-	-	-	-	-	-
GASTUAK GUZTIRA		1.993.373,00	12.000,00	2.005.373,00	1.919.593,57	1.879.318,00	40.275,57	85.779,43

-Eurotan-

2015EAN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Hasieran kobratzeko / ordaintzeko	Baliogabetzea	Kobrantsak / Ordaintetak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak		277.221,22	772,00	275.236,22	1.213,00
Hartzekodunak		64.674,35	45.423,86	-19.250,49	
ITXITAKO AURREKONTUAK		212.546,87	(44.651,86)	255.985,73	1.213,00



1.3. ERREENTERIA MUSIKAL PATRONATUA (jarraipena)

1.3.2. AURREKONTU EMAITZA

		-Eurotan-
Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		(335.478,49)
Likidatutako eskubideak	1.584.115,08	
Aitortutako obligazioak	1.919.593,57	
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetao eragiketen emaitza:		44.651,86
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	45.423,86	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	772,00	
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU EMAITZA		(290.826,63)
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		11.951,65
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	11.951,65	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak	-	
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		(278.874,98)

1.3.3. DIRUZAINZAKO GERAKINA

		-Eurotan-
1.- Diruzaintzako funts likidoak		101.914,78
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		259.012,94
Aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak	259.012,94	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		125.129,90
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	40.275,57	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak	-	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	84.854,33	
Aplikatzeko dauden ordainketak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		235.797,82
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		235.797,82
Finantzaketa lotua	-	
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		235.797,82



1.4. UDAL KIROL PATRONATUA

1.4.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

-Eurotan-

SARREREN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena	Gauzatze-egoera
3- Tasak eta bestelako sarrerak	3.4	201.000,00	-	201.000,00	217.361,28	217.361,28	-	16.361,28
4- Transferentzia arruntak	3.5	1.021.340,00	34.000,00	1.055.340,00	1.054.868,61	1.054.868,61	-	(471,39)
Sarrera arruntak guztira		1.222.340,00	34.000,00	1.256.340,00	1.272.229,89	1.272.229,89	-	15.889,89
7- Kapital-transferentziak	3.5	-	40.000,00	40.000,00	39.504,25	39.504,25	-	(495,75)
8- Finantza-aktiboak		-	40.825,13	40.825,13	-	-	-	(40.825,13)
Kapital-sarrerak guztira		-	80.825,13	80.825,13	39.504,25	39.504,25	-	(41.320,88)
SARRERAK GUZTIRA		1.222.340,00	114.825,13	1.337.165,13	1.311.734,14	1.311.734,14	-	(25.430,99)

-Eurotan-

GASTUEN EGOERA ORRIA – 2015EKO EKITALDIA								
Kapitulua	Atala	Hasierako aurrekontua	Aldaketa +/-	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena	Gauzatze-egoera
1- Langile-gastuak	3.8	174.500,00	(3.657,26)	170.842,74	162.347,36	162.347,36	-	-8.495,38
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	3.9	936.500,00	55.007,39	991.507,39	991.353,25	991.353,25	-	154,14
4- Transferentzia arruntak		111.340,00	23.475,00	134.815,00	120.471,59	120.471,59	-	14.343,41
Gastu arruntak guztira		1.222.340,00	74.825,13	1.297.165,13	1.274.172,20	1.274.172,20	-	22.992,93
6- Inbertsio errealak		-	40.000,00	40.000,00	39.504,29	39.504,29	-	495,71
Kapital-gastuak guztira		-	40.000,00	40.000,00	39.504,29	39.504,29	-	495,71
GASTUAK GUZTIRA		1.222.340,00	114.825,13	1.337.165,13	1.313.676,49	1.313.676,49	-	23.488,64

-Eurotan-

2015EAN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA					
Kontzeptua	Atala	Hasieran kobratzeko / ordaintzeko	Baliogabetzea	Kobrantsak / Ordainketak	Kobratzeko / ordaintzeko
Zordunak		52.476,04	-	52.476,04	-
Hartzekodunak		144.714,63	-	144.714,63	-
ITXITAKO AURREKONTUAK		(92.238,59)	-	(92.238,59)	-



1.4. UDAL KIROL PATRONATUA (jarraipena)

1.4.2. AURREKONTU EMAITZA

		-Eurotan-
Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza:		(1.942,35)
Likidatutako eskubideak	1.311.734,14	
Aitortutako obligazioak	1.313.676,49	
<hr/>		
Aurreko ekitaldietako aurrekontu likidatuetako eragiketen emaitza:		-
Itxitako ekitaldietako obligazio ordaindu gabeen bajak	-	
Itxitako ekitaldietako eskubide kobratu gabeen bajak	-	
<hr/>		
DOIKUNTZA AURREKO AURREKONTU EMAITZA		(1.942,35)
Aurrekontu-emaitzaren doikuntzak:		40.825,13
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak	40.825,13	
Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketako desbideratzeak	-	
<hr/>		
AURREKONTU EMAITZA DOITUA		38.882,78

1.4.3. DIRUZAINZAKO GERAKINA

		-Eurotan-
1.- Diruzaintzako funts likidoak		58.388,96
2.- Kobratzeko dauden saldoak:		-
Aitortutako eskubideen ondoriozko zordunak	-	
Aurrekontuz kanpoko zordunak	-	
Aplikatzeko dauden kobrantzak	-	
<hr/>		
3.- Ordaintzeko dauden saldoak:		14.181,20
Aitortutako eskubideen ondoriozko hartzekodunak	-	
Sarrerren aurrekontuko hartzekodunak	-	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	14.181,20	
Aplikatzeko dauden ordainketak	-	
<hr/>		
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA (1 + 2 - 3)		44.207,76
Gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak	-	
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		44.207,76
Finantzaketa lotua	-	
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		44.207,76



**ERRENTERIAKO UDALA ETA MENDEKO
ERAKUNDE AUTONOMOAK**

***2015EKO AURREKONTUEN LIKIDAZIOEI DAGOZKIEN
EGOERA ORRIEN AZALPEN ATALAK ETA BESTELAKO
OHARRAK***



2. AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. SARRERA

Errenteria Donostialdean dago, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta zuzenbideko 39.276 biztanle dauzka 2015eko urtarrilaren 1eko datuen arabera.

Aurrekontu-ekitaldiaren amaieran, toki-erakundeek kontu orokorra prestatu behar dute. Horretan, ekonomiaren, finantzaren, ondarearen eta aurrekontuaren arloetako kudeaketa aditzera eman behar dute. Udalerri honi dagokionez, 2015eko ekitaldiari dagokion ERRENTERIAKO UDALAREN kontu orokorra *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 62. artikulua* Udalerri berari eta berezko nortasun juridikoa duten eta bere mendekoak diren erakunde autonomoei eskatzen dizkien aurrekontuko eta ondareko kontuek osatzen dute:

- Adinduen Egoitzaren Udal Patronatua (Adinduen Egoitza)
- Errenteria Musikal Patronatua (Errenteria Musikal)
- Udal Kirol Patronatua (Kirolak)

Eta txosten honen xede ez den “Errenteria Garatuz Udal Sozietatea - Errenteria Garatuz Sociedad Municipal, SA”.

Erakunde horiei aplikatzekoa den finantza- eta aurrekontu-informazioaren esparru arauemailea aipatutako foru-arauan bertan eta foru-dekretu honetan ezarritakoa da: *100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako toki-entitateen aurrekontu-egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituena*.

Erantsita doazen aurrekontuko egoera-orriak soilik (1. atala), aipatutako kontu orokorraren baitan daudenak, dira gure lanaren xede, *kontu-ikuskapeneko txostenean* deskribatutako irispidearen arabera. Nolanahi ere, irispide horretan ez da sartu Udalaren gastuaren eraginkortasunari buruzko azterketa, ez eta haren kudeaketa-prozedurei buruzkoa ere.

Txosten honen datan, Udalbatzak onartu gabe zuen adierazitako kontu orokorra. Hala ere, ez dirudi onarpenaren ondorioz aldaketak izango direnik.



2.2. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2015eko ekitaldian, Gipuzkoako toki-mailako sektore publikoa araupetzen duen araudiak zuzendu ditu udala eta haren erakundeak:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena.
- Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen lehen, zortzigarren eta hemeretzigarren xedapen gehigarriak.
- 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 100/2004 Foru Dekretua, abenduaren 21koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egitura eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onartzen dituena.
- 3/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Orokorren osagarria den abenduaren 13ko 5/2001 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Toki-erakundeetan aplikatzeari dagokionez, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartzen duena.
- 141/2007 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, toki entitateen Kontabilitate Instrukzioa eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorren hainbat xedapenen aldaketa onartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.



- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzkoa.
- Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluaren 2014ko azaroaren 18ko erabakia (Gipuzkoako toki-erakundeek 2015. urteko aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko bete beharko duten jarraibidea).
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 2/2005 Foru Araua, martxoaren 8koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergena.
- 1/2015 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztekoa.
- 15/1994 Foru Araua, azaroaren 23koa, Udal Finantzaketarako Foru Fondoa arautzen duena.

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau *gomendatzen dugu*:

⇒ Udalaren eta mendeko erakunde autonomoen egoera-orri bateratuak egitea, udal-jarduera guztiaren kontabilitate-informazioa lortu ahal izateko. Kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko prozesuan ezabatu egin behar dira bateratutako erakundeen arteko saldo eta transakzio garrantzitsuak.



3. AZALPEN ATALAK: IRUZKINAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, eta kudeaketa-arlo adierazgarrietako bakoitzerako, ikuskatutako egoera-oriak interpretatzeko eta ulertzeko beharrezkotzat eta behar bestekotzat jotzen den informazioa garatuko da. Era berean, gure lanean hautemandako egitateak zabaldu egin dira, emandako iritziaren salbuespeneko paragrafoetan jaso diren egitateak hain zuzen ere (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*). Azkenik, atal horietan ere, Udalaren antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemekin lotuta antzemandako akatsak barne hartzen dira. Horiek ez dute eragin nabarmenik aipatutako erakundearen jardura ekonomikoa eta finantzarioa zuzentzen duten kontabilitate-printzipioetan, eta haien kudeaketa hobetzeko eman dira aditzera.

3.1. AURREKONTUA ETA AURREKONTU ALDAKETAK

Udalak ez du onartu 2015eko ekitaldirako aurrekontu orokorra. Horrenbestez, *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren* 50. artikulua ezartzen duen moduan, automatikoki luzatutzat hartzen dira aurreko ekitaldikoak. Beraz, dokumentu honetan 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa aipatzen denean, 2014ko ekitaldiko aurrekontu luzatuaren likidazioa esan nahi dela ulertu behar da.

2015eko otsailaren 10ean kontu-hartzaileak txostena jaulki du aurrekontuaren luzapenerako baldintzak ezartzeko, arestian aipatutako artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Irizpide horien artean daude, funtsean, ordainketa-kredituei dagokienez, luzagarritzat jotzen ez diren kredituak identifikatzearekin, ezarritako kasuetan sartzen ez direnak zein zenbatekotan luza daitezkeen zehaztearekin, konpromiso-kreditutzat hartzearekin eta haren zerbitzuko langileen ordainsarrietan igoera mugatuak egitearekin zerikusia dutenak.

Gainera, artikulua horretan adierazten da, halaber, luzatutako kredituek biltzen duten guztizkoaren behar adinako finantzaketa ziurtatzeko prozedura. Horrela, luzatu gabeko sarrerak deskontatu ondoren (aurreikuspenen arabera ekitaldian jasoko ez direnak), aurrekontu-oreka egiaztatu behar da. Oreka hori lortzen ez bada, Udalbatzako buruak, Kontu-hartzailetzak txostena egin ondoren, behar diren doikuntzak egingo ditu oreka lortu arte.

Arautze hori gorabehera, 2014ko ekitaldiko aurrekontu luzatuaren hasierako zenbatekoak zehaztean, honako hauek ikusi ditugu (*ikus Kontu-ikuskapeneko txostena*):



- Luzatutako kredituen guztizkoak ez ditu betetzen aplikatzekoa den araudiak ezarritako mugak; aitzitik, jarraitutako prozedurak behar diren gastuen guztizkoa kontuan hartu du, bai eragiketa arruntetan, bai kapitalekoetan. Zehazki, luzatutakoen artean daude, 6.348.120 euroko zenbatekoa biltzen duten inbertsioetarako kredituak, (“Kaputxinos igerilekua, II. fasea” barnean hartuta 1.283.231 euroko zenbatekoarekin, 2014ko ekitaldiaren itxieran urte anitzeko kreditutzat jotzen zena).
- Luzatutako kredituen guztizkoaren eta luza daitezkeen sarreren edo ekitaldian likidatzeko aurreikusten direnen arteko aldea, 2.119.389 eurokoa, kreditu-eragiketa berri baten sarrera-aurreikuspenekin estali da.
- Bestalde, formalizatutako eta 2014ko abenduaren 31n erabili gabeko maileguaren saldoa, 2.301.252 eurokoa, 2015eko ekitaldiari txertatzeko kredituen zati bat finantzatzeko baliabide gisa erabili da, 1.396.455 euroko zenbatekoaz. Txertatutako kredituen guztizkoa finantzatzeko, halaber, 2015eko urrian formalizatutako 1.209.152 euroko kreditu-eragiketa berri bat erabili da baliabide gisa. (2015ko urrian formalizatu egin zen 1.588.500 eurogatik)
-

Aurrekontua ez da programa-mailan garatzen eta, horrenbestez, ezinezkoa da programen helburuak, ekintzak eta adierazleak deskribatzea.

Ekitaldian zehar Udalak eta bere mendeko erakundeek hainbat aurrekontu-aldaketa egin dituzte. Hona hemen Udalaren aurrekontuan onartutako aldaketen kapitulukako gehikuntza eta murrizketen xehetasuna:



-Eurotan-

Kapitulua	Kredituak aldatzeko erregimena					Aldaketak guztira
	Kredituak txertatzea	Kredituak gaitzea	Kreditu gehigarriak	Transferentziak		
				+	-	
Sarreren egoera-orria						
4. Transferentzia arruntak	-	479.213,10	-			479.213,10
7. Kapital-transferentziak	-	229.848,38	-			229.848,38
8. Finantza-aktiboak	2.510.221,22	-	1.143.888,00			3.654.109,22
9. Finantza-pasiboak	2.984.955,00	-	-			2.984.955,00
Sarreretak aldaketak guztira	5.495.176,22	709.061,48	1.143.888,00			7.348.125,70
Gastuen egoera-orria						
1. Langile-gastuak	-	-	300.000,00	381.000,00	-	681.000,00
2. Ondasunak eta zerbitzuak	516.125,26	7.875,00	136.743,00	412.062,13	(390.656,00)	682.149,39
3. Finantza-gastuak	-	-	-	-	(171.000,00)	(171.000,00)
4. Transferentzia arruntak	625.518,05	3.000,00	143.552,00	815,00	(870.211,73)	(97.326,68)
6. Inbertsio errealak	4.338.532,91	698.186,48	523.593,00	636.990,60	-	6.197.302,99
7. Kapital-transferentziak	15.000,00	-	40.000,00	-	-	55.000,00
8. Finantza-aktiboak	-	-	-	1.000,00	-	1.000,00
Gastuetako aldaketak guztira	5.495.176,22	709.061,48	1.143.888,00	1.431.867,73	(1.431.867,73)	7.348.125,70

2015eko ekitaldian, Udalak kredituak aldatzeko hamazazpi espediente onartu ditu guztira. Horietatik bi kredituak txertatzekoak izan dira, bi kreditu gehigarrienak, sei kredituak gaitzekoak eta gainerako zazpiak kreditu-transferentziak izan dira.

Kreditu-transferentzia bidez egindako kreditu-aldaketak, 2015eko uztailaren 20ko Alkatetzaren Dekretuak onartutakoak, 504.341 euroko zenbatekoaz, % 25ean gainditzen zuen programa multzo baten aldakuntza. Indarrean dagoen araudiaren arabera, programa multzo desberdinen arteko transferentziak Udalbatzak onartuko ditu, jatorrizko eta helmugako programetan aldaketen aldakuntza metatu aurreikusitako haien hasierako kontsignazioen % 25 gainditzen duenean.

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau *gomendatzen dugu*:

⇒ *Aurrekontu-prozesua planifikatzea aurreikusteko modukoa izan dadin, gutxienez, ekitaldiko aurrekontuaren hasierako onarpena ekitaldia hasi baino lehen lortzea.*



3.2. AURREKONTUA GAUZATZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK

Aurrekontu-likidazioaren ondoriozko emaitzak

Udalaren, Adinduen Egoitzaren, Musika Patronatuaren eta Kirol Patronatuaren 2015eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak 2016ko martxoaren 21eko, 2016ko otsailaren 26ko, 2016ko martxoaren 18ko eta 2015eko abenduaren 31ko Alkatetzaren Dekretuek onartu dituzte, hurrenez hurren.

“Indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu-eragiketen emaitza” aurrekontuan sartutako zenbatekoen (aurreko taulan adierazitako aldaketak aintzat hartu ondoren) eta azkenik onartutako eskubide eta obligazioen arteko aldeen batura gisa lortzen da, honako xehetasun honen arabera:

		-Eurotan-
Sarrerren egoera-orria:		(2.055.583,74)
Sarrera arrunt handiagoak	279.974,14	
Kapital-sarrera txikiagoak	(2.335.557,88)	
Gastuen egoera-orria:		8.405.082,18
Gastu arrunt txikiagoak	2.666.820,85	
Kapital-gastu txikiagoak	5.738.261,33	
2015ean zehar aurrekontu-aldaketak finantzatu dituen 2014/12/31ko diruzaintzako gerakina		3.654.109,22
Indarrean dagoen aurrekontuko eragiketen emaitza:		2.695.389,22

Gastuen aurrekontuaren gauzatze-maila % 84,9koa da. Ehuneko hori, batik bat, gastu arrunteko kapituluetan eta “Finantza-pasiboak” kapituluan lortu den gauzatze-maila handiari esker erdietsi da; izan ere, kapituluok batera kalkulatuta, gauzatze-maila % 93,9koa da.

Bestalde, “Inbertsio errealak” kapituluaren gauzatzea % 54,6koa izan da. Ehuneko horrek, era berean, aurreko ekitaldietatik txertatutako kredituen multzoan (% 71,3) eta 2015eko ekitaldiko ordainketa-kredituetan (% 45,8) aitortutako obligazioen eragina hartzen du barnean.

Gauzatze-maila txiki hori da 2016ko ekitaldiko aurrekontuari kapitulu horietako 4.031.670 euroko kreditu-gerakinak txertatzeko arrazoi nagusia, txertatutako kreditu-gerakin guztien % 80,6, hain zuzen ere.



Aurrekontu-egonkortasuna

2012ko maiatzaren 1ean indarrean jarri zen *2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa*. Legean honako hiru helburu hauek ezartzen dira: Administrazio Publiko guztien finantza-iraunkortasuna bermatzea; Espainiako ekonomiaren egonkortasunean konfiantza indartzea; eta aurrekontu-egonkortasunaren arloan Europar Batasunarekin konpromisoa indartzea.

Legearen printzipio orokorren barruan, aurreko legeriaren lau printzipioei eusten zaie – *aurrekontu-egonkortasuna, urteaniztasuna, gardentasuna, eta eraginkortasuna eta eragimena baliabide publikoak esleitzean*–, eta hiru printzipio berri sartzen dira: *finantza-iraunkortasun, erantzukizun eta leialtasun instituzionala*.

Tokiko erakundeetan aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak eraginkortasunez aplikatzeak honako baldintza hauek betetzea dakar:

- Aurrekontu-egonkortasuna: erakunde horiek aurrekontu-orekari edo -superabitari eutsi beharko diote haien aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzean (finantzatzeko ahalmenaren edo premiaren arabera neurtzen da, Kontu Nazionalen eta Eskualdekoen Europako Sisteman jasotako definizioari jarraituz).
- Gastuaren araua: gastu konputagarriaren aldakuntzak ezin izango du gainditu epe ertainerako Espainiako ekonomiaren barne-produktu gordinaren (BPG) erreferentziako hazkunde-tasa. 2015eko ekitaldirako tasa hori % 1,3koa izan da. Gainera, aurreikusitakoak baino sarrera handiagoak lortzen direnean, horiek zor publikoaren maila murriztera zuzenduko dira oso-osorik.
- Zor-muga: administrazio publikoen multzoaren zor publikoaren bolumenak ezin izango du guztira BPGaren % 60 gainditu. Ildo horretatik, *Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloetan finantza-tutoretzako eskuduntza garatzeko jarraibidearen arabera*, bete beharreko helburua izango da 2015eko abenduaren 31ko zor bizia gehienez ere 2014an likidatutako sarrera arrunten % 95ekoa izatea.

Azkenik, aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastuaren arauaren helburuak betetzeari buruzko hainbat txosten egiteko beharra jasotzen da. Helburuak betetzeari buruzko txostena egingo da, bai aurrekontu-proiektuetan, bai hasierako aurrekontuetan, bai horiek gauzatzean.

Helburu horietako edozein ez betetzeak, beraz, urtebeteko epean sortutako desbideratzea zuzentzea ahalbidetuko duen ekonomia- eta finantza-plana aurkeztu beharra eskatuko du.



Bestalde, 2013ko ekitaldian indarrean jarri zen *1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.*

Bertan adierazten denez, besteak beste, aurrekontu-egonkortasunaren helburua diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz betetzen ez bada, ekonomia- eta finantza-plana aurkeztu beharrean inguruabar hori egiaztatuko duen kontu-hartzailetzaren txostena jakinaraziko zaio Udalbatzari. Txosten horretan erakundearen finantza-iraunkortasuna aztertu eta ebaluatuko da.

Halaber, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kredituak txertatzeko erabiltzea ahalbidetzen du. Horrez gain, uneko ekitaldirako finkatutako zor-helburua betetzen duten erakundeek gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili ahal izango dute kreditu gehigarriak finantzatzeko.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2015eko ekitaldiko hasierako aurrekontuak, aldatutakoak eta aurrekontuaren likidazioa bateratuzetik ondorioztatzen den finantzatzeko ahalmena/premia honakoa da:

-Eurotan-

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Eskubideak / Obligazioak
Sarreraren egoera-orriko 1.etik 7.era bitarteko kapituluak	51.356.747,60	52.234.809,08	52.402.220,03
Gastuen egoera-orriko 1.etik 7.era bitarteko kapituluak	50.816.846,00	58.964.738,56	50.409.926,76
Finantzatzeko ahalmena (premia)	539.901,60	(6.729.929,48)	1.992.293,27
1.etik 7.era bitarteko kapituluetan gastu handiagoak finantzatzeko erabilitako diruzaintzako gerakina eta horrek aitortu eta finantzatutako obligazioak	-	3.736.934,35	2.221.013,62
Diruzaintzako gerakina erabili ondoren finantzatzeko ahalmena (premia)	539.901,60	(2.992.995,13)	4.213.306,89

Kredituak aldatzeko finantzaketan erabilitako diruzaintzako gerakina kontuan hartu eta gero, urratu egiten da egonkortasun-printzipioa behin betiko aurrekontuaren fasean, izan ere, maileguz ondoriozko sarrerak erabili baitira finantzatzeko iturri gisa. Udalak ekonomia- eta finantza-plan bat izapidetu eta onartu du.



3.3. ZUZENeko ZERGAk

Hona hemen Udalaren sarreren egoera-orriko kapitulu horri dagozkion eskubideen banakatzea:

-Eurotan-

Zerga	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	6.288.468,17	6.002.055,48	286.412,69
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	2.165.953,38	2.048.120,08	117.833,30
Ekonomia-jardueren gaineko zerga	898.508,29	413.369,10	485.139,19
Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga	563.024,69	451.478,80	111.545,89
Guztira	9.915.954,53	8.915.023,46	1.000.931,07

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Ondasun higiezinaren gaineko zerga" (OHZ) eta "Ekonomia-jardueren gaineko zerga" (EJZ) kontzeptuen ondorioz lortu beharreko sarrerak jakinarazten dizkio Udalari dagokion errolda edo likidazio osagarriak aurkeztuta. Udalak erroldari dagokion zenbatekoa edo aipatutako likidazioen guztizkoa dagokion ekitaldiko sarrera gisa erregistratzen du, ekitaldi horretako kontabilitatea itxi ez bada.

3.4. ZEHARKAKO ZERGAk, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Udalaren sarreren egoera-orriaren kapitulu honetan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrien xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

ZEHARKAKO ZERGAk			
Kontzeptua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	256.357,15	173.973,79	82.383,36
Guztira	256.357,15	173.973,79	82.383,36



- Eurotan -

TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK			
Kontzeptua	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Ur-hornidura	1.975.601,62	1.463.337,62	512.264,00
Zabor-bilketa	1.959.651,88	1.880.274,19	79.377,69
Estolda-zerbitzua	844.763,44	628.952,86	215.810,58
Errailak, zutoinak, kableak eta tximeletak	989.657,33	514.427,84	475.229,49
Bide publikoan aparkatzea (TAO)	743.069,85	691.309,67	51.760,18
Isunak	340.238,31	183.635,33	156.602,98
Etzeko laguntza	53.477,66	48.081,72	5.395,94
Ibilgailuak erretiratzea	102.554,07	86.777,62	15.776,45
Ibilgailuen sarrera	209.120,16	202.556,51	6.563,65
Telekomunikazio-operadoreak	99.614,24	71.546,64	28.068,20
Premiamendu-errekarguak	211.137,24	211.137,24	-
Bide publikoko kioskoak	98.204,01	80.674,76	17.529,25
Azoka txikia	99.563,79	81.712,80	17.850,99
Hirigintzako lizentziak	92.777,80	65.312,43	27.465,37
Gazteria	67.754,18	67.754,18	-
Irekitze-lizentzia	61.404,33	38.694,25	22.710,08
Jaiak: feriak, kalez kaleko postuak	36.329,35	36.329,35	-
Euskara	67.837,72	49.578,22	18.259,50
Irakaskuntza bereziak	37.294,10	37.294,10	-
Udal-ondasunen aprobetxamendua	21.852,78	20.306,78	1.546,00
Uztargi haurtzaindegia	32.016,39	26.889,56	5.126,83
Erreterria Hiria Kulturgunea	12.979,56	12.979,56	-
Itzulketak	87.094,29	87.094,29	-
Hilerria eta beste zenbait hileta-zerbitzu	6.379,66	6.379,66	-
Estazio fotovoltaikoak	15.724,74	15.724,74	-
Aldizkarien eta hainbat dokumenturen salmenta	13.539,28	12.499,23	1.040,05
Beste hainbat sarrera	51.291,51	50.527,20	764,31
Guztira	8.330.929,89	6.671.788,35	1.659.141,54

“Ur-hornidura” eta “Estolda-zerbitzua” epigrafeetan 2015eko ekitaldian onartutako errolden ondorio diren sarrerak laburbilduta ageri dira, 2014ko ekitaldiko laugarren hiruhilekoari eta 2015eko ekitaldiko lau hiruhilekoei dagozkienak.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, *Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen duen azaroaren 4ko 181/2008 Dekretua* indarrean jarri ondoren, tokiko erakundeak behartuta daude ur-horniduraren kanona Uraren Euskal Agentziaren kontura ordainaraztera, eta sei hilez behin likidatu behar dute erakunde horrekin.



Likidatutako kanonaren zenbatekoa beste sarrera-kontzeptu bat balitz bezala erregistratzen da uraren erroldaren barruan, gero, erakunde horri ordaindutakoan, baliogabetzeko. Kanon horren ondorioz egiten diren kobrantzak (udala bitartekaria baino ez da) aurrekontuz kanpo erregistratu beharko lirateke.

Udalaren mendeko erakundeetako bakoitzean, hurrenez hurrengo sarreraren egoera-orrietako "Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluaren likidatutako eskubideen kontzeptukako xehetasuna honakoa da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Likidatutako eskubideak		
	Adinduen egoitza	Errenteria Musikal	Kirolak
Kuotak	1.648.386,31	282.727,00	217.361,28
Beste hainbat sarrera	31.540,29	1.507,02	-
Guztira	1.679.926,60	284.234,02	217.361,28

"Zeharkako zergak" eta "Tasak eta bestelako sarrerak" kapituluaren azaldutako sarrerak, batez ere, Udalak berak edo dagokion mendeko erakundeak kudeatzen ditu.

3.5. JASOTAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Hona hemen udalaren sarreraren egoera-orriari dagozkion kapitulu horien osaera:

- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Erakunde emailea	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Gipuzkoako Foru Aldundia - UFFF	23.461.888,05	23.063.688,93	398.199,12
Gipuzkoako Foru Aldundia - beste diru-laguntzak	1.233.077,70	958.616,17	274.461,53
Eusko Jauriaritza	820.713,80	712.687,94	108.025,86
Estatua	44.008,11	44.008,11	-
Beste zenbait	41.851,86	30.438,90	11.412,96
Guztira	25.601.539,52	24.809.440,05	792.099,47

- Eurotan -

KAPITAL TRANSFERENTZIAK



Erakunde emailea	Likidatutako eskubideak	Diru-bilketa likidoa	Kobratzeko dagoena
Eusko Jaurlaritza	207.020,56	89.485,87	117.534,69
Gipuzkoako Foru Aldundia	2.118.137,64	410.617,18	1.707.520,46
Herribus	50.000,00	50.000,00	-
Guztira	2.375.158,20	550.103,05	1.825.055,15

2015eko ekitaldian “Udal Finantzaketarako Foru Funttsaren” kontzeptupean likidatutako eskubideek, Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilez behin ordaindutako konturako entregez gainera, 2015eko ekitaldiari dagokion udal-partaidetza horren behin betiko likidazioa biltzen dute.

Transferentzia arrunt gisa erregistratutako sarrerei dagokienez, “Gipuzkoako Foru Aldundia - beste diru-laguntzak” epigrafean erregistratuta daude, eskubide azpimarragarrienen artean, 2015eko etxeko laguntzari dagozkion eskubideak, 918.500 eurokoak.

“Eusko Jaurlaritza” epigrafean, diru-laguntzarik adierazgarrienak euskara bultzatzearekin eta gizarte-larrialdietarako laguntzekin erlazionatutakoak dira, 381.667 eta 378.423 euroko aitortutako eskubideekin, hurrenez hurren.

Kapital-transferentziei dagokienez, bestalde, “Gipuzkoako Foru Aldundia” epigrafearen barruan kultura-ekipamenduei dagozkien diru-laguntzak (1.050.000 euro) eta Errenteriako Udalaren Plan Estrategikoaren Kudeaketa (624.497 euro) ditugu.

Udalaren mendeko erakundeetako bakoitzean, dagozkion sarreren egoera-orrietako “Transferentzia arruntak” eta “Kapital-transferentziak” kapituluetan likidatutako eskubideen laburpena honako hau da erakunde emailearen arabera:



- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Kontzeptua	Likidatutako eskubideak		
	Adinduen Egoitza	Errenteria Musikal	Kirolak
Eusko Jaurlaritza	14.701,62	267.155,14	-
Gipuzkoako Foru Aldundia	2.801.770,12	-	36.853,59
Errenteriako Udala	1.215.280,13	1.018.775,55	1.018.015,02
Enpresak	-	13.950,37	-
Guztira	4.031.751,87	1.299.881,06	1.054.868,61

- Eurotan -

KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
Kontzeptua	Likidatutako eskubideak		
	Adinduen Egoitza	Errenteria Musikal	Kirolak
Errenteriako Udala	30.942,00	-	39.504,25
Guztira	30.942,00	-	39.504,25

3.6. FINANTZA PASIBOEN ETA FINANTZA GASTUEN ALDAKUNTZA

Sarrerren egoera-orria

- Eurotan -

FINANTZA SARRERAK			
Erakunde mailegu-emailea	Aitortutako eskubideak	Kobrantza likidoak	Kobratzeko dagoena
Caja Rural de Navarra	2.984.955,00	2.984.955,00	-
Guztira	2.984.955,00	2.984.955,00	-

2014ko maiatzaren 14an 2.301.252 euroko mailegu bat formalizatu zen Banco Sabadell-Guipuzcoano erakundearekin, 10 urteko eperako (bi urteko gabealdia barne), hiru hilez behingo 32 kuotatan itzultzekoa eta Euribor +%3,39ko interes-tasa duena. Mailegu horretatik 1.396.455 euro erabili dira 2015ean. Gainerako zenbatekoa, 904.797 euro, gabealdiaren amaieran kitatu zen, eta, horrenbestez, eragiketa horren behin betiko nominala adierazitako erabilitako kopurua izan zen.

2015eko urriaren 6an 1.588.500 euroko mailegu bat formalizatu da Caja Rural de Navarra erakundearekin, 15 urteko eperako (bi urteko gabealdia barne), hiru hilez



behingo 52 kuotatan itzultzekoa eta Euribor +% 0,85eko interes-tasa duena. 2015eko ekitaldian osorik erabili da mailegu hori.

Halaber, 2015eko abenduaren 29an 2.119.389 euroko mailegu bat formalizatu da Caja Rural de Navarra erakundearekin, 15 urteko eperako (bi urteko gabealdia barne), hiru hilez behingo 52 kuotatan itzultzekoa eta Euribor +% 0,94ko interes-tasa duena. 2015eko ekitaldian ez da kopururik erabili.

Bestalde, 2015eko ekitaldian Udalak bere gain hartu du 726.400,56 euroko zor bizia, haren mendeko Errenteria Garatuz, SA sozietateak La Caixa erakundearekin formalizatutako maileguari dagokiona.

Gastuen egoera-orria

Udalaren gastuen egoera-orriaren “Finantza-gastuak” eta “Finantza-pasiboak” kapituluaren osaera honako hau da:

- Eurotan -

FINANTZA GASTUAK			
Kontzeptua	Likidatutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Interesak	220.293,46	220.293,46	-
Berandutze-interesak	37.731,11	37.731,11	-
Guztira	258.024,57	258.024,57	-

- Eurotan -

FINANTZA PASIBOAK			
Kontzeptua	Likidatutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Sektore publikoaz kanpoko maileguen amortizazioa	2.600.609,14	2.600.609,14	-
Guztira	2.600.609,14	2.600.609,14	-

Udalak 2017an itzultzen amaitu beharko lukeen 240.405 euroko mailegua eman zion Eusko Jaurlaritzak. 2015eko ekitaldian, Udalak 2015eko ekitaldikiko kuotei dagozkien obligazioak aitortu ditu, 12.710 euroko zenbatekoaz.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak laguntza batzuk eman zituen, mailegu gisa, epe luzera eta interesik gabe: 2004an 47.271 euro eta 2007an 51.243, GS3-Gecotor-Sabatenea eraikinean industria-aurriak eraisteko, eta Udalak kapitaleko diru-laguntza gisa erregistratu zituen zegozkion aurrekontuetan.



Hitzartutako baldintzen arabera, zor den kopurua gehienez ere sei hilabeteko epean itzuli beharko litzateke, urbanizazio-proiektua onartzen denetik hasita. Baldin eta eraikuntzarik eta urbanizaziorik egingo ez balitz, gehienez ere hamar urteko epean itzuli beharko litzateke, hitzarmena sinatzen denetik (2004/12/09 eta 2007/12/28) aurrera.

Udalean, 2016ko ekitaldiko aurrekontu-gastutzat hartuko diren 2015eko abenduaren 31n sortutako eta ordaindu gabeko interesen zenbatekoa 10 mila eurokoa da, gutxi gorabehera.

Halaber, 2014ko ekitaldian sortutako interesen ondoriozko gastuak 2015eko ekitaldian sartu dira, gutxi gorabehera 19 mila euroko zenbatekoarekin.

Hurrengo taulan ikus daiteke maileguez ekitaldian izan duten bilakaera:

Erakunde maillegu-emaillea	Emandako zenbaterkoko	Emate-data	Epemuga	2015/12/31ko interes-tasa	2014/12/31ko saldoa	2015ean erabilia	2015ean izandako bilakaera		2015/12/31ko saldoa	Erabilgarria
							Interesak	Amortizazioa		
Kutxabank	2514628102	2000/09/13	2015/10/01	% 0,09	174.995,58	-	222,84	174.995,58	-	-
Kutxabank	2515416549	2001/07/20	2016/07/20	% 0,09	244.265,74	-	421,61	162.754,68	81.511,06	-
Kutxabank	2516215064	2002/09/05	2017/09/05	% 0,04	737.376,03	-	1.134,90	245.376,88	491.999,15	-
Kutxabank	2516816424	2003/10/21	2018/10/21	% 0,04	722.135,58	-	1.142,65	180.076,65	542.058,93	-
Kutxabank	2518115668	2005/12/28	2021/03/21	% 0,04	654.601,99	-	1.066,34	104.272,43	550.329,56	-
Kutxabank	2517478216	2004/12/29	2019/12/29	% 0,04	593.233,62	-	957,00	112.591,59	480.642,03	-
Kutxabank	2518541640	2006/11/27	2021/11/27	% 0,04	953.667,28	-	1.561,98	135.548,70	818.118,58	-
Kutxabank	2518996679	2007/05/14	2022/05/14	% 4,16	910.004,90	-	36.720,90	105.647,24	804.357,66	-
Kutxabank	2519893354	2008/05/02	2023/05/02	% 0,04	787.176,82	-	1.284,89	89.375,29	697.801,53	-
Kutxabank	2521373304	2011/11/11	2026/11/11	% 2,39	1.402.541,54	-	34.863,60	101.420,88	1.301.120,66	-
Kutxabank	2521613865	2012/07/16	2024/07/16	% 2,63	1.857.177,07	-	61.115,54	190.479,72	1.666.697,35	-
Banco de Crédito Local	42164245	2001/07/20	2016/07/20	-	253.571,55	-	367,40	144.898,02	108.673,53	-
Banco de Crédito Local	42787004	2002/09/05	2017/09/05	-	273.094,86	-	312,45	99.307,15	173.787,71	-
Banco de Crédito Local	9544045088	2005/12/28	2020/12/28	-	352.307,67	-	372,45	70.461,53	281.846,14	-
Banco de Crédito Local	9544542527	2003/10/21	2018/10/21	-	397.616,73	-	447,60	66.269,45	331.347,28	-
Banco de Crédito Local	9543393061	2004/12/29	2019/12/29	-	218.672,88	-	296,86	54.668,22	164.004,66	-
BBVA	0182.5709.07346691.06	2007/05/21	2022/05/21	-	264.872,89	-	11.895,08	37.841,68	227.031,21	-
La Caixa	30823735319	2006/11/01	2021/11/01	-	617.076,96	-	708,82	88.153,84	528.923,12	-
La Caixa	30866167278	2007/06/01	2022/06/01	% 4,80	272.884,65	-	12.614,56	36.384,62	236.500,03	-
La Caixa	30955734192	2008/05/05	2023/05/05	% 0,10	733.653,82	-	26.472,15	83.846,16	649.807,66	-
La Caixa (Errenteria Ga.)	31191275456 (*)	2012/03/23	2017/03/23	% 3,06	726.400,56	-	22.575,92	303.528,73	422.871,83	-
Sabadell-Guipuzcoano	1001604	2014/05/14	2024/05/14	% 1,82	-	1.396.455,00	1.664,11	-	1.396.455,00	-
Caja Rural de Navarra	3151165754	2015/10/06	2030/10/06	% 1,02	-	1.588.500,00	-	-	1.588.500,00	-
Caja Rural de Navarra	3276112459	2015/12/29	2030/12/29	-	-	-	-	-	-	2.119.389,00
Eusko Jauriantza - BOE		-	-	-	41.438,51	-	2.073,81	12.710,10	28.728,41	-
Eusko Jauriantza (aurriak)	(**)	-	-	-	51.251,80	-	-	-	51.251,80	-
2015EAN ITXITAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA						2.984.955,00	220.293,46	2.600.609,14	13.624.364,89	2.119.389,00

(*) Errenteria Garatuz, SA sozietatearen mailegua; Udatak bere gain hartu du 2015ean haren saldo bizia.

(**) 2015/12/31n zuzendutako kontabilitate-saldoa.



3.7. LANGILE GASTUAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu honi dagozkion obligazioen banakatzea honako hau da:

-Eurotan-

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Soldatak eta alokairuak			
Kabineteetako behin-behineko langileen ordainsariak	45.411,03	45.411,03	-
Funtzionarioen ordainsariak	10.570.427,87	10.570.427,87	-
Lan-kontratuko langile finkeko ordainsariak	194.647,48	194.647,48	-
Lan-kontratuko behin-behineko langileen ordainsariak	432.535,80	432.535,80	-
Goi-karguen ordainsariak	342.590,12	342.590,12	-
Soldatak eta alokairuak guztira	11.585.612,30	11.585.612,30	-
Gizarte-kargak			
Gizarte Segurantza	3.093.983,87	3.093.983,87	-
Prestakuntza	7.900,00	1.463,00	6.437,00
Elkarkidetza	255.675,45	255.675,45	-
Bizi- eta istripu-aseguruak	71.098,36	71.098,36	-
Erretiro aurreratuen kalte-ordainak	101.169,54	80.349,26	20.820,28
Gizarte-kargak guztira	3.529.827,22	3.502.569,94	27.257,28
Guztira	15.115.439,52	15.088.182,24	27.257,28

“Goi-karguen ordainsariak” epigrafean nominak erregistratuta daude:

2015eko ekainaren 12a arte

Alkatearena, erabat liberatuta eta % 100eko dedikazioarekin egon diren bost zinegotzirenak eta, hurrenez hurren, % 90eko eta % 70eko dedikazioarekin egon diren beste bi zinegotzirenak.

2015eko ekainaren 13tik aurrera

Alkatearena, erabat liberatuta eta dedikazio eskusiboarekin egon diren zortzi zinegotzirenak, eta 2015eko ekainaren 24a arte % 90eko dedikazioarekin egon den beste zinegotzi batena eta 2015eko urriaren 26tik aurrera % 90eko dedikazio partzialarekin egon den beste zinegotzi batena.



2015eko ekitaldian ez dira 2014ko abenduaren 31n indarrean zeuden soldatak igo, 2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 36/2014 Legearen 20. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1993ko martxoaren 31n Toki Administrazioako Funtzionarioen Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren aplikazio-eremuan barne hartuta zeuden Udaleko langile aktiboak eta pasiboak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean integratuta geratu ziren 1993ko apirilaren 1etik aurrera.

Gizarte Segurantzak bere gain hartzen dituen obligazioen ondoriozko integrazio-kostuak estaltzeko konpentsazio ekonomiko gisa, Udalak aipatutako langile aktiboen kontingentzia arrunten ondoriozko kotizazio-oinarrien gaineko % 8,2ko kotizazio gehigarria egingo du hogeitertan, 1996ko urtarrilaren 1etik hasita. Kontzeptu horren ondorioz aitortutako obligazioak 155.232 eurokoak izan dira 2015ean.

Udalak ekitaldi bakoitzean eta ordainketak egiteko unean erregistratzen du kontzeptu horren ondoriozko aurrekontu-gastua.

Udalan 2015eko abenduaren 31n honako langile hauek ari dira lanean:

	Pertsona kopurua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Goi-karguak	6	4	10
Funtzionarioak	162	133	295
Lan-kontratuko langile finkoak	1	25	26
Lan-kontratuko aldi baterako langileak	1	3	4
Guztira	170	165	335

Udalaren mendeko erakunde bakoitzean, dagozkion gastuen egoera-orrietako "Langile-gastuak" kapituluaren aitortutako obligazioen xehetasuna, kontzeptuka, honako hau da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak		
	Adinduen egoitza	Errenteria Musikal	Kirolak
Soldatak eta alokairuak	535.100,36	1.311.741,92	127.298,28
Gizarte-kargak	155.386,32	377.447,99	35.049,08
Guztira	690.486,68	1.689.189,91	162.347,36



3.8. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu honetan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrien xehetasuna honako hau da:

-Eurotan-			
Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Beste enpresa batzuek egindako lanak	10.181.881,45	9.184.052,96	997.828,49
Ur-hornidura	1.537.179,04	1.233.210,62	303.968,42
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	1.196.358,55	1.108.504,47	87.854,08
Energia elektrikoaren hornidura	565.930,18	518.916,78	47.013,40
Herriko argiak	384.315,48	350.287,48	34.028,00
Jarduera soziokulturalak	338.183,09	285.370,92	52.812,17
Komunikazioak	303.106,75	294.633,86	8.472,89
Gas- eta erregai-hornidura	221.077,21	193.295,19	27.782,02
Aseguru-primak	186.595,59	186.228,42	367,17
Jaiak	7.264,92	7.264,92	-
Kanpainak	61.650,81	61.650,81	-
Bestelako hornidurak	180.072,77	155.618,24	24.454,53
Beste hainbat gastu	308.043,98	285.536,65	22.507,33
Bulegoko materiala	94.691,68	79.730,72	14.960,96
Publizitatea eta propaganda	68.561,53	51.716,44	16.845,09
Bestelako kalte-ordainak	3.901,57	2.313,56	1.588,01
Dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	15.196,98	13.937,18	1.259,80
Gastu juridikoak	17.952,13	16.318,63	1.633,50
Errentamenduak	7.260,75	7.260,75	-
Kanona	12.264,00	12.264,00	-
Garraioak	4.772,06	4.375,07	396,99
Beste zenbait gastu	222.990,53	166.116,70	56.873,83
Guztira	15.919.251,05	14.218.604,37	1.700.646,68

2015eko ekitaldian beste enpresa batzuek egindako lanen xehetasuna taula honetan ikus daiteke:

-Eurotan-			
Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Garbiketa eta hondakin-bilketa	2.503.107,12	2.277.706,64	225.400,48
Mankomunitateak eta partzuergoak: San Marko	1.758.176,59	1.510.395,20	247.781,39
Kale-garbiketa	1.566.566,22	1.432.592,98	133.973,24
Etxeko laguntza-zerbitzua	1.126.820,41	1.028.879,10	97.941,31
TAO zerbitzua eta ibilgailuak erretiratzea	913.459,92	805.171,60	108.288,32
Beste enpresa batzuek egindako bestelako	731.978,89	642.679,48	89.299,41



-Eurotan-

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
lanak			
Aldi baterako ostatu hartzeko etxebizitzak	440.324,43	396.454,31	43.870,12
Aisia-jarduerak	429.644,69	406.963,96	22.680,73
Lanbide-hastapeneko zentroaren kontratua	204.743,83	204.743,83	-
Familia arloko esku-hartzea	122.137,90	119.709,54	2.428,36
Informatika-zerbitzua	88.406,83	84.324,70	4.082,13
Egonaldiak egoitzetan	48.916,96	43.069,39	5.847,57
Hainbat	93.119,84	83.761,21	9.358,63
Eskola- eta haur-jarduerak	78.582,71	78.465,71	117,00
Agenda 21	42.698,00	37.198,50	5.499,50
Azterketa eta lan teknikoak	33.197,11	31.936,81	1.260,30
Guztira	10.181.881,45	9.184.052,96	997.828,49

“Mankomunitateak eta partzuergoak: San Marko” epigrafearen barruan, San Marko Mankomunitatearen defizita finantzatzeko ekarpenaren ondorio diren gastu aitortuak biltzen dira, 502.552 euroko zenbatekoaz (Ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*).

Gure lanean zehar hauteman dugunez, 2015eko abenduaren 31n gauzatutako gastuak egozte faltako litzateke, UTE Biok enpresak Errenteriako Udalaren Larrialdietako Plana egiteari dagokion fakturaren (FF 2015/12/30) ondorioz, 21.254 euroko zenbatekoaz (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*).

“TAO zerbitzua eta ibilgailuak erretiratzea” epigrafean 2015ean bi zerbitzuek egindako gastuak jaso dira. Hona hemen zerbitzuarekin erlazionatutako sarrerei zein gastuei dagokien xehetasuna:

-Eurotan-

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Likidatutako eskubideak (3.4. atala)	Superabita/(Defizita)
TAO zerbitzua	527.460,00	743.069,85	215.609,85
Ibilgailuak erretiratzeko zerbitzua (garabia)	385.999,92	81.625,70	(304.374,22)
Kontratari ez dagozkion beste batzuk	-	20.928,37	20.928,37
Guztira	913.459,92	845.623,92	(67.836,00)

Udalaren mendeko erakundeetan, hurrenez hurrengo gastuen egoera-orrietako “Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak” kapituluaren aitortutako obligazioen kontzeptukako xehetasuna honako hau da:



- Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak		
	Adinduen Egoitza	Errenteria Musikal	Kirolak
Errentamenduak	-	1.541,70	-
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	232.361,83	480,57	61.974,91
Bulegoko materiala	10.916,81	16.434,87	-
Hornidurak	144.310,93	13.418,96	392.162,95
Komunikazioak	-	2.731,97	1.575,13
Aseguru-primak	2.535,70	811,90	-
Hainbat gastu	13.437,71	12.427,72	547,54
Beste enpresa batzuek egindako lanak	4.176.987,21	102.571,16	533.207,20
Dietak, lokomozioa eta joan-etorriak	718,22	20.924,81	-
Ondasun eta zerbitzuen beste erosketak	353.800,12	-	459,50
Guztira	4.935.068,53	171.343,66	991.353,25

Adinduen Egoitzak kontabilizatu dituen beste enpresa batzuek egindako lanak langileen eta zerbitzu medikoaren azpikontratari dagozkio batik bat.

3.9. EMANDAKO TRANSFERENTZIA ARRUNTAK ETA KAPITAL TRANSFERENTZIAK

Udalaren gastuen egoera-orrriko kapitulu horien osaera honako hau da:

- Eurotan -

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
Onuraduna	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Mendeko erakunde autonomoak	3.251.515,68	3.243.838,72	7.676,96
Mankomunitateak eta partzuergoak	38.621,48	38.621,48	-
Familiak	1.214.101,22	1.115.427,70	98.673,52
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	692.030,83	685.285,02	6.745,81
Enpresa pribatuak	621.801,41	582.637,94	39.163,47
Beste zenbait erakunde publiko	112.251,51	112.251,51	-
Oarsoaldea, SA	578.417,59	491.644,55	86.773,04
Guztira	6.508.739,72	6.269.706,92	239.032,80



- Eurotan -

KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
Onuraduna	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Mendeko erakunde autonomoak	69.504,25	69.504,25	-
Behemendi	29.000,00	-	29.000,00
Natura 2000 sarea	30.000,00	30.000,00	-
Guztira	128.504,25	99.504,25	29.000,00

2015eko abenduaren 31n, Udalak baliogabetuta ditu, 31.010 euroko baterako zenbatekoaz, Oarsoaldea, SA sozietateari “Plan Orokor Arrunterako”, “Enplegu propioaren planerako” eta “Tokiko ekintzak batera finantzatzeko” emandako 566.347 euroko diru-laguntzen zati batzuk (*ikus Kontu-ikuskapeneko txostena*).

Hauxe da erakunde autonomoei egindako ekarpen arrunten xehetasuna:

- Eurotan -

Erakunde autonomoa	Aitortutako obligazioak	
	Transferentzia arruntak	Kapital-transferentziak
Adinduen Egoitza	1.214.725,11	30.000,00
Errenteria Musikal	1.018.775,55	-
Kirol Patronatua	1.018.015,02	39.504,25
Guztira	3.251.515,68	69.504,25

2003ko ekitaldian indarrean jarri zen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa, mota horretako espedienteak izapidetzeko aplikatzekoa.

Lege horretan ezarritakoari jarraikiz, Udalak 2015. urterako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2015eko otsailaren 18ko Tokiko Gobernu Batzordean.

Halaber, Udalbatzak, 2015eko apirilaren 28an egindako bilkuran, diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen udal-ordenantza onartu zuen.



3.10. INBERTSIO ERREALAK

Udalaren gastuen egoera-orriaren kapitulu horretan kontabilizatutako kontzeptu adierazgarrienen xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

Kontzeptua	Aitortutako obligazioak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeko dagoena
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	4.245.669,86	3.668.153,45	577.516,41
Azpiegitura eta urbanizazioa	1.218.287,16	1.069.259,06	149.028,10
Plangintza	439.463,03	368.916,63	120.546,40
Lursailak	200.000,00	200.000,00	-
Makineria, instalazioak eta tresneria	192.208,58	176.842,36	15.366,22
Garraio-materiala	235.888,09	233.233,83	2.654,26
Informazio-prozesuetarako tresneria	67.291,86	40.723,87	26.567,99
Funts bibliografikoak	50.221,18	49.558,65	662,53
Altzariak	10.907,29	7.707,18	3.200,11
Beste zenbait inbertsio	131.104,55	131.104,55	-
Proiektu konplexuak	13.078,98	13.078,98	-
Guztira	6.854.120,58	5.958.578,56	895.542,02

Aurreko "Eraikinak eta bestelako eraikuntzak" epigrafearen barruan 2015eko ekitaldian gauzatutako obra azpimarragarrienak sartuta daude. Honako hauek dira:

- Eurotan -

Obra	Aitortutako obligazioak
Ikastetxeak birgaitzea	334.621,55
Niessen auditoriuma	233.751,47
Garapen sozioekonomikoa eta enplegua sortzea	193.916,68
Beraun Kaputxinoetako igerilekuak	1.387.053,91
Lekuona eraikina, egitura egokitzea	1.721.792,22

Aurreko "Azpiegitura eta urbanizazioa" epigrafearen barruan 2015eko ekitaldian gauzatutako obra azpimarragarrienak sartuta daude. Honako hauek dira:

- Eurotan -

Obra	Aitortutako obligazioak
Ondartxoko zubia goratzea	93.063,37
Niessen desjabetzeko kalte-ordaina	80.740,60



- Eurotan -

Obra	Aitortutako obligazioak
Kalea asfaltatzea	319.518,80
Kaleak urbanizatzea	157.826,58
Agustinetako igogailua	168.366,40

Gure lanean zehar hauteman dugunez, 2015eko abenduaren 31n gauzatutako gastuak egoztea faltako litzateke, Eraikuntza, Birgaikuntza, Artapena, SL enpresaren 6. ziuertagiriari (2015eko abendua) dagokion fakturaren ondorioz, 41.793 euroko zenbatekoaz (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*).

3.11. DIRUZAINTZAKO FUNTS LIKIDOAK

2015eko abenduaren 31ko diruzaintzako egoera-orritik, aurrekontu-eragiketei eta aurrekontuz kanpoko eragiketei esleitutako funtsen honako izakin hauek ondoriozta daitezke:

- Eurotan -

Eragiketak	Zenbatekoa
Aurrekontukoak	3.287.559,49
Aurrekontuz kanpokoak	(2.326.328,00)
Eskudiruzko izakinak guztira	961.231,49

Eskudiruzko izakinen zenbatekoa hainbat banku-erakundetako kontuetan zegoen gauzatuta, honako xehetasun honen arabera:

- Eurotan -

Erakundea	Zenbatekoa
Kutxa, eskudirutan	867,18
La Caixa	96.648,50
Kutxabank	658.102,83
BSCH	7.364,52
Caja Laboral - Euskadiko Kutxa	10.523,09
Banco Sabadell-Guipuzcoano	45.573,30
BBVA	52.604,93
Caja Rural de Navarra	89.547,14
Eskudiruzko izakinak guztira	961.231,49



Gainera, Udala titular duten zenbait banku-kontu ez daude diruzaintzako egoera-orri horretan sartuta; ekitaldiaren itxieran 1.847 euroko baterako saldoa zuten. Kontu horiek, funtsean, Bilketa Sailaren kudeaketa-kontuei dagozkie.

Caja Rural de Navarra eta BBVA erakundeek egin diegun eskaerari emandako erantzunetan ez dituzte baimendutako sinadurak sartu, eta Santander erakundeak sartu dituen sinadurak ez daude eguneratuta.

3.12. AITORTUTAKO ESKUBIDEEN ONDORIOZKO ZORDUNAK

Udalak erregistratutako 2015eko abenduaren 31n kobratzeko zeuden aurrekontu-eskubideen kapitulukako osaera eta antzintasunaren xehetasuna, 2015eko ekitaldian zehar likidatutakoak nahiz aurreko ekitaldietan likidatutakoak barne hartzen dituena, honako hau da:

- Eurotan -

AURREKONTUKO ZORDUNAK				
Kapitulua	2013 eta aurrekoak	2014	2015	Guztira
1- Zuzeneko zergak	862.266,35	299.339,64	1.000.931,07	2.162.537,06
2- Zeharkako zergak	45.137,92	4.549,20	82.383,36	132.070,48
3- Tasak eta bestelako sarrerak	643.808,92	178.624,46	1.659.141,54	2.481.574,92
4- Transferentzia arruntak	-	-	792.099,47	792.099,47
5- Ondare-sarrerak	5.262,12	85.867,08	35.605,67	126.734,87
7- Kapital-transferentziak	-	23.721,78	1.825.055,15	1.848.776,93
8- Finantza-aktiboak	271,72	2.475,00	11.969,00	14.715,72
Guztira	1.556.747,03	594.577,16	5.407.185,26	7.558.509,45

“Tasak eta bestelako sarrerak” kapituluaren barruan, “Trafiko-isunak” kontzeptuaren ondorioz kobratzeko daudenen artean dago 541.468 euroko zenbatekoa 2015eko abenduaren 31n. Bestalde, bilketako aplikazioak data horretan kobratzeko daudenen artean jasotzen du, “Isunak” kontzeptuaren zein “Zigorak” kontzeptuaren ondorioz, 590.080 euroko guztizko zenbatekoa. Lanean aritu garen bitartean ezin izan dugu egiaztatu bi aplikazio horien artean dagoen 48.612 euroko aldearen jatorria.

21/2003 Foru Arauak ezartzen duenez, gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideen kopuruaren zehaztapena banan-banan nahiz hainbesteko ehuneko bat finkatzearen bidez egin behar da, zorren antzintasuna, horien zenbatekoa, baliabideen izaera, borondatezko aldiko nahiz betearazte-bideko zerga-bilketaren ehunekoak eta abar kontuan hartuta. Nolanahi ere, behar bezala aitortutako eskubideak, kontuetan jaso direnetik 24 hilabetetik gorako



antzinatasuna dutenak, gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat joko dira, behar bezala bermatuta ez badaude eta likidatzen den ekitaldiaren hurrengoan kobratzea aurreikusten ez bada behintzat.

Eskubide bat gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat hartzeak ez dakar eskubide horren baliogabetzerik, ezta kontuetako bazarik ere.

2015eko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoen guztizko horretatik, Udalak, funtsean kobraezin-ehuneko bat aplikatuta kontabilizatutako hondarren antzinatasunaren arabera, guztira 2.160.137 euro gauzatzen zailtzat edo gauzaezintzat har daitezkeela kalkulatu du. Zenbateko hori aipatutako kontzeptuaren arabera kendu da itxiera-datako diruzaintzako gerakin gordinetik.

Udalak, alabaina, “Lurzorua, hegala eta zorupea okupatzea”, “Bide publikoan aparkatzea” edo “Euskaltegiaren sarrerak” bezalako kontzeptuen ondorioz kobratzeko zeuden zenbatekoak sartu ditu kalkuluan. Zenbateko horiek 2016ko ekitaldiaren hasieran kobratu dira. Kontzeptu horiek kontuan hartu ez balitu, gauzatzen zailak edo gauzaezinak diren eskubideak 2.023.388 eurokoak izango ziratekeen, hots, Udalak proposatutako doikuntza baino 136.749 euro gutxiago (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*).

3.13. AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK ETA HARTZEKODUNAK

Aurrekontu-sarrerarik eta -gasturik ez dakarten eragiketen bidez esleitu diren ordaintzeko edo kobratzeko kontuen 2015eko abenduaren 31ko xehetasuna honako hau da:

- Eurotan -

AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuz kanpoko bestelako zordunak	9.390,00
Epe laburrerako ezarpenak	4.850.000,00
Gizarte-aurreikuspeneko erakunde zordunak	400,00
BEZaren ondoriozko zordunak	65.005,46
Guztira	4.924.795,46



- Eurotan -

AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Jasotako fidantzak eta gordailuak	944.204,50
Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko hartzekodun	94.827,90
Ogasuna, beste kontzeptu batzuen ondoriozko hartzekodun	293.172,74
Gizarte-aurreikuspeneko erakunde hartzekodunak	397.166,16
BEZaren ondoriozko hartzekodunak	36.770,75
Guztira	1.766.142,05

“Epe laburrerako ezarpenak” kontuak diruzaintzako puntan emaitzako funts likidoen inbertsioak jasotzen ditu, finantza-etekin hobeak lortzeko asmoz. 2015eko abenduaren 31ko banku-datuen arabera, ezarpenen zenbatekoa 4.850.000 eurokoa zen. Ezarpenak honako hauei dagozkie:

Banku-erakundea	Zenbatekoa	Erosketa-data	Epemuga
Banco Sabadell-Guipuzcoano	500.000,00	2015/05/27	2016/05/27
Banco Sabadell-Guipuzcoano	500.000,00	2015/09/09	2016/03/10
Banco Sabadell-Guipuzcoano	500.000,00	2015/09/17	2016/03/18
Banco Sabadell-Guipuzcoano	1.350.000,00	2015/12/16	2016/01/27
Banco Sabadell-Guipuzcoano	2.000.000,00	2015/11/27	2016/05/29
	4.850.000,00		

“Ogasun Publikoa, BEZaren ondoriozko zordun” kontuaren 2015eko abenduaren 31ko saldoak Ogasun Publikoarekin izandako saldo zordun eta hartzekodunen ekitaldiaren itxiera-datako konpentsazioa biltzen du. Saldo horiek, kasu honetan, udalak ur-hornidurako zerbitzua egiteko burututako jardueren ondorioz jasandako eta jasanarazitako zergaren kuotak kontabilizatzearen ondorio dira batik bat.

“Jasotako fidantzak eta gordailuak” kontuetan kontabilizatutako eskudiruzko balioetan sartzen dira udalaren esku dauden eta ekitaldian edo aurreko ekitaldietan kutxan edo finantza-erakundeetan eskudirutan eratu diren ondasunak. Oro har, bat datoz aipatutako eskudiruaren hirugarren hartzekodunek galda ditzaketan eskubideekin.

Egindako berrikuspenaren ondorioz, antzeman da jasotako zenbatekoek kasu batzuetan 1948ko antzintasuna duten saldoak jasotzen dituztela. Udalak saldo horiek aurrekontu arruntera pasatzeko aukera aztertu beharko luke.



Halaber, epigrafe horretako “Epe laburrera jasotako gordailuak” kontuaren saldoaren barruan, dagokien aurrekontu-kontzeptuan aplikatu ez diren bilketako kontuen kobrantzak erregistratuta daude, 157.989 euroko zenbatekoa biltzen dutenak. Erregistratuta dago, halaber, Kirol Patronatuak itxitako banku-kontuko funtsen eskualdatzea, 21.323 euroko zenbatekoaz (4.3. atala).

“BEZaren ondoriozko zordunak” eta “BEZaren ondoriozko hartzekodunak” kontuetan zergapetuta eta salbuetsi gabe dauden erlazionatutako jardueren ondorioz hirugarrenekin sortutako zorrak biltzen dira, zerga horren kuotak jasaten dituztenak edo jasanarazten zaizkienak hain zuzen ere.

“Ogasun Publikoa, beste zerga-kontzeptu batzuen ondoriozko hartzekodun” kontuan, udaleko langileen nominan egindako atxikipenen ondorioz eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kontura bere zerbitzuan aritu diren hainbat profesionali ordaindutako zerbitzularietan egindako atxikipenen ondorioz Ogasun Publikoarekin dagoen zorra erregistratzen da. Ekitaldiaren itxierako saldoa udal-langileen nominetan 2015eko abenduan egindako atxikipenek osatzen dute funtsean.

“Gizarte-aurreikuspeneko erakunde hartzekodunak” errubrikaren saldoak 2015eko abenduko nominan udal-langileei egindako atxikipenen eta udalak hainbat organismo eta erakunderi (Gizarte Segurantzari, OLAZi eta Elkarkidetza BGAeri, batik bat) egindako ekarpenen ondorioz 2015eko abenduaren 31n erakunde horiei ordaintzeko zegoen zenbatekoa jasotzen du.

Aurreko paragrafoen arabera, honako hau *gomendatzen dugu*:

⇒ *“Jasotako fidantzak eta gordailuak” ataleko kontuen barruan kontabilizatuta agertzen diren fidantzen eta gordailuen galdagarritasun-maila aztertzea eta, egindako lanaren emaitzaren arabera, hala badagokio, horiek itzuli edo erregularizatzea (aurrekontu arruntean txertatuta).*

3.14. TXERTATU BEHARREKO KREDITU GERAKINAK ETA KONPROMISO KREDITUAK

Txertatu beharreko kreditu-gerakinak

Udlean baliogabetu ez diren eta 2016ko ekitaldiko aurrekontuan txertatu diren kreditu-gerakinen kapitulukako osaera eta antzinasunaren xehetasuna honako hau da:



- Eurotan -

KREDITU GERAKINAK				
Kapitulua	2013	2014	2015	Guztira
1- Langile-gastuak	-	-	450.000,00	450.000,00
2- Ondasun eta zerbitzuen erosketak	-	66.713,53	171.322,54	238.036,07
4- Transferentzia arruntak	-	82.082,85	200.521,73	282.604,58
6- Inbertsio errealak	127.105,04	122.797,05	3.781.797,86	4.031.699,95
Guztira	127.105,04	271.593,43	4.603.642,13	5.002.340,60

Kreditu-gerakin horiek 2016ko ekitaldiko aurrekontuan txertatzea honako hauen kargura finantzatuko da:

- Finantzaketa lotuko gastuetarako diruzaintzako gerakina 437.188 euro
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 2.431.309 euro
- Sarrera-konpromisoak: Finantza-pasiboak 14.454 euro
- Sarrera-konpromisoak: Lekuona eraikinaren kultura-ekipamenduak 2.119.389 euro

Araudiak ez du onartzen kreditu-gerakinak behin eta berriz txertatzea, baliabide finalistekin finantzatzen diren kapital-eragiketen kasuan izan ezik.

Konpromiso-kredituak

2015eko abenduaren 31n, Udalak 700.000 euro ditu, hurrengo ekitaldietako aurrekontuen hasierako aurreikuspenetan sartuko direnak, ekitaldi horietarako jarraian adierazitako gastu-proiektuen ondorio diren konpromisopeko ordainketak egiteko:

- Udalbatzak, 2013ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, 2014tik 2017ra arteko ekitaldietarako konpromiso-kredituak onartu zituen, 800.000 euroko guztizko zenbatekoaz, EAJ/PNVri desjabetutako lokal baten balio justu gehigarriaren ordainketari aurre egiteko (zenbateko horretatik 400.000 euro 2014an eta 2015ean ordaindu ziren).

2015eko abenduaren 31n, hau da gainerako konpromiso-kredituen egutegia:

Kontzeptua	Ekitaldiak		
	2016	2017	Guztira
EAJ/PNVren lokalaren balio justua	200.000	200.000	400.000
Guztira	200.000	200.000	400.000



- Udalbatzak, 2014ko uztailearen 17an egindako bilkuran, 2014tik 2017ra arteko ekitaldietarako konpromiso-kredituak onartu zituen, 2.584.922 euroko guztizko zenbatekoaz (horietatik 290.000 euro 2014an ordaindu ziren eta 2.119.389 euro 2015ean ordaindu dira), Lekuona fabrika birgaitu eta Arte Eszenikoen Zentro Garaikide bihurtzeko obrak finantzatzeko.

2016ko ekitaldirako onartutako konpromisoa 175.533 eurokoa zen. Alabaina, 2015eko abenduaren 31n, Udalak konpromiso-kredituen eranskinean sartzen du honako hau:

Kontzeptua	Ekitaldiak	
	2016	Guztira
Lekuona fabrika birgaitzea	300.000,00	300.000,00
Guztira	300.000,00	300.000,00



4. ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ARLO INTERESGARRIAK

Erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa Errenteriako Udaleko alkateak onartu zuen eta 2015eko aurrekontu-ekitaldian garatutako jarduera jasotzen du.

Horietako bakoitzean antzeman diren ekintza adierazgarrien edo hobetzeko moduko alderdien artean, honako hauek aipa daitezke:

4.1. ADINDUEN EGOITZAREN UDAL PATRONATUA

Egoitzako gastuen aurrekontua gauzatzeak ez ditu bereizten “Baimendua”, “Erabilia” eta “Obligazio aitortua” faseak, eta gastua aitortzeko unean metatzen ditu hiru faseak.

Egoitzaren aurrekontuari egindako aldaketak gorabehera, aurrekontua gauzatzeko arauan ezarritako kredituen lotura juridikoaren mailen arabera, lotura-maila batzuetan aurrekontu-kontsignazioa 17.940 euroko zenbatekoaz gainditu du baimendutako gastuak “VI. Inbertsio errealak” kapituluan.

Bestalde, patronatuak kreditu-aldaketa gisa erregistratu du 2015eko udal-ekarpenaren sarreraren baja, 104.475 euroko zenbatekoaz, bere diruzaintzako gerakinaren kargura. Ez dago eragiketa hori erregistratu beharrik.

Egindako iruzkinak direla-eta, honako hau *gomendatzen dugu*:

⇒ *Aurrekontua gauzatzeko faseak errespetatzea.*

⇒ *Baimendutako kredituen izaera mugatzailea eta loteslea beteko dela ziurtatzea ahalbidetuko duten kontrolak ezartzea.*

4.2. ERRENTERIA MUSIKAL PATRONATUA

Musika Patronatuko gastuen aurrekontua gauzatzeko ez ditu bereizten “Baimendua”, “Erabilia” eta “Obligazio aitortua” faseak, eta gastua aitortzeko unean metatzen ditu hiru faseak (nahiz eta ekitaldi amaieran kasu zehatzen bat bereizten hasi den).



Gure lanean zehar hauteman dugunez, 2015eko abenduaren 31n gastuak egozte faltako litzateke, 4.521 euroko zenbatekoaz. Limpiezas Etxegar, SL enpresak urrian egindako zerbitzuen fakturari dagozkio gastu horiek.

Egindako iruzkinak direla-eta, honako hau *gomendatzen dugu*:

⇒ *Aurrekontua gauzatzeko faseak indarrean dagoen araudian ezarrita dauden bezalaxe errespetatzea.*

4.3. UDAL KIROL PATRONATUA

Patronatu honetako gastuen aurrekontua gauzatzek ez ditu bereizten “Baimendua”, “Erabilia” eta “Obligazio aitortua” faseak.

2015eko abenduaren 31n, likidatutako diruzaintzako gerakinean jasotako funts likidoek 21.323 euro biltzen dituzte Kutxabank erakundeko izakin gisa, data hori baino lehen Udalaren banku-kontu batera eskualdatu zirenak eta, horrenbestez, haren funts likidoen parte direnak.

Beraz, patronatuak likidatutako gastu orokorretarako gerakina eta aurrekontu-emaitza, 2015eko ekitaldiari dagozkionak, behar baino 21.323 euro handiagoak dira (ikus *Kontu-ikuskapeneko txostena*).

Patronatuak ez du ondare-kontabilitatea eramaten.

Egindako iruzkinak direla-eta, honako hau *gomendatzen dugu*:

⇒ *Aurrekontua gauzatzeko faseak errespetatzea eta erregistratzea.*

⇒ *Ondare-kontabilitatea eramaten hastea, horri buruz indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan.*